# Iragarkiak

## Pribatuen Iragarkiak

**SPRI SA**

**2595**

IRAGARKIA, «Kultura Ekintzailearekiko Sentsibilizazioa» izeneko laguntza-programaren araudia onartzeko dena.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAren Administrazio Kontseiluak, 2011ko martxoaren 30ean egindako bileran, «Kultura Ekintzailearekiko Sentsibilizazioa» programan ezarritako laguntzak emateko araudia onartzea erabaki zuen. Hona hemen araudiaren testua, oso-osorik:

Kultura ekintzailea garatzea da Europak enplegua sustatzeko dituen funtsezko lau zutabeetako bat. Eta hori gertatzen da, besteak beste, izaera ekintzaileak enpleguaren sorrera eta ekonomiaren hazkundea eragiten dituelako, enpresa berriak eratuz. Eta, gainera, enpresa-sarearen lehiakortasuna bultzatzen du, egungo lehia-presioa handitzen duenez gero.

Era berean, enpresa-dinamismoak Europar Batasunarentzat dituen garrantzia eta interesa Europako Batzordeak enpresa-espiritua sustatze aldera argitaratutako Liburu Berdean eta ekintza-plan baten abiarazpenean islatuta geratu ziren. Plan horrek arlo politiko estrategiko hauek ditu: enpresa-pentsamoldea bultzatzea, jende gehiago bide berriak urratzera animatzea, enpresak sortzea, eta hazkundera nahiz lehiakortasunera bideratzea. Europako Kontseiluaren azken gomendioek eta zuzentarauek (2005) Lisboako Estrategia bultzatu eta Europaren hazkunde-ahalmena areagotu nahi dute, eta, besteak beste, zuzentarauetako bat, hain zuzen ere 15.a, enpresa-kultura sustatzera eta ETEen aldeko ingurune bat eratzera bideratuta dago.

Harrera beroa egin zitzaion Ekintzailearen Eguna antolatzeko ekimenari, bai eta toki-garapenerako agentziek kudeatu eta betearazitako ekintzei ere. Hori kontuan harturik, ekimen hau sendotu eta nabarmenagotzen hasi da. Horregatik, SPRIko Enpresen Sustapen eta Garapen Zuzendaritzak (SPRI Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren mendean dago) beharrezko ikusten du beste ekintza batzuk gauzatu eta bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan bide berriak urratzen ari diren eragileenak.

# Anuncios

## Anuncios Particulares

**SPRI, S.A.**

**2595**

ANUNCIO de aprobación de la normativa del programa de ayudas «Sensibilización Cultura Emprendedora».

El Consejo de Administración de Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. en su reunión de 30 de marzo de 2011 ha acordado aprobar la normativa por la que se regirá la concesión de ayudas contempladas en el programa «Sensibilización Cultura Emprendedora», cuyo texto integro a continuación se indica.

El desarrollo de la cultura emprendedora es uno de los cuatro pilares fundamentales de la estrategia europea para el empleo. Esto se debe, entre otras razones a que el espíritu emprendedor contribuye a la generación de empleo y al crecimiento económico mediante la creación de nuevas empresas y además favorece la mejora de la competitividad del tejido empresarial al aumentar la presión competitiva existente.

Asimismo, la importancia y el interés que tiene el dinamismo empresarial para la Unión Europea se vio reflejado en la publicación por parte de la Comisión Europea del Libro Verde a favor del espíritu empresarial, y en la puesta en marcha de un Plan de Acción, entre cuyos ámbitos políticos estratégicos se encuentra: fomentar la mentalidad empresarial, animar a un mayor número de personas a emprender, crear empresas y orientarles hacia el crecimiento y la competitividad. Del mismo modo, las últimas recomendaciones y directrices del Consejo Europeo (2005), que pretenden dar un nuevo impulso a la Estrategia de Lisboa e incrementar el potencial de crecimiento de Europa, incluyen, entre otras, la directriz n.º 15 dirigida a promover la cultura empresarial y crear un entorno favorable para las PYMEs.

Guiados por la buena acogida de la iniciativa del Día de la Persona Emprendedora, y de las acciones gestionadas y ejecutadas por las agencias de desarrollo local, se consolida y toma mayor relevancia esta iniciativa por lo que desde la Dirección de Promoción y Desarrollo Empresarial de SPRI, S.A. dependiente del Dpto. de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, se considera necesario extender y apoyar otras acciones procedentes de los diversos agentes que operan en el emprendimiento en el País Vasco.

Lan-merkatuan eta arlo ekonomikoan, bilakaera azkarra gertatzen ari da, kulturan, gizartean, teknologian eta mugikortasunean izan diren aldaketengatik. Bilakaera hori dela-eta, gizarte-erakundeek politika berriak diseinatuko dituzte, antolakundeetan eta pertsonengan aldaketaren aldeko halako jarrera proaktibo bat eragin nahirik, eta estrategia berriak sortarazi guran, beharrizan berrietara egokitu ahal izateko.

Horiek horrela, beharrezkoa da zenbait eremutatik jarduera batzuk bateratzea. Horretarako, laguntza-deialdi hau plazaratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko eragile, instituzio eta erakundeengan halako pizgarri bat eragin nahirik, kultura ekintzailea zabaltzeko asmoz, ez bakarrik enpresa arloan (merkatuen globalizazioa, nazioartekotzea, aurrerapen teknologikoak, sozialak eta antolaketa mailakoak), baizik eta pertsonengan ere bai (ezaugarri eta ahalmen berriak).

***1. artikulua.***– Xedea.

Programa honen xedea ekimen ekintzailea ezagutu eta bultzatzea da, garapen ekonomikoa bultzatu, enplegua sortu eta gizartea bateratzen baitu, bai eta programan sartzeko baldintzak eta prozedura arautu ere.

***2. artikulua.***– Ezar daitekeen araudia.

– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzak bermatzeko eta itzultzeko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Estatuak sozietate publikoei aplikatzekoak direla xedatzen duen puntuetan.

– Europako Batzordearen 1998/2006 (EE) Erregelamendua, minimis-eko laguntzei ezar dakizkiekeen alorretan (EBAO L379 2006ko abenduaren 28koa).

***3. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

Programa honen xederako bideratutako baliabide ekonomikoak Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzak SPRI SAri esleitutako aurrekontu-zuzkiduretatik datoz. Baliabide horiek 300.000 eurokoak dira.

***4. artikulua.***– Erakunde onuradunak.

Programa honetako laguntzen erakunde onuradunak honako hauek izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoan ikastegiak dituzten unibertsitate ofizialak; Euskal Autonomia Erkidegoko zentro teknologikoak; Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta berrikun-

La rápida evolución que está experimentando el mercado de trabajo y el entorno económico, motivada por cambios culturales, sociales, tecnológicos y de movilidad, impulsa a los entes sociales a diseñar nuevas políticas dirigidas a promover en las organizaciones y personas una actitud proactiva al cambio y a propiciar la creación de estrategias que permitan la adaptación a las nuevas necesidades.

En este contexto, es por tanto necesaria, la conjunción de una serie de actuaciones, desde diferentes ámbitos, para lo cual se promueve la presente convocatoria de ayudas con el objetivo de incentivar a los Agentes, Instituciones y Organismos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a contribuir con el objetivo de extender la cultura emprendedora, no sólo en el entorno empresarial (globalización de mercados, internacionalización, avances tecnológicos, sociales y organizacionales), sino también en las personas (nuevos perfiles y nuevas competencias).

***Artículo 1.***– Objeto.

El presente programa tiene por objeto reconocer e impulsar la iniciativa emprendedora como motor de desarrollo económico, creador de empleo y cohesionador social, así como regular las condiciones y el procedimiento de acceso al mismo.

***Artículo 2.***– Normativa aplicable.

– Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones en aquello que constituya Estadote aplicación a las sociedades públicas.

– Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión relativo a la aplicación a las ayudas de minimis (DOUE L379 de 28 de diciembre de 2006).

***Artículo 3.***– Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a la finalidad de este programa proceden de las correspondientes dotaciones presupuestarias asignadas al efecto a SPRI, S.A. desde la Dirección de Administración y Seguridad Industrial, del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, cuyo importe asciende a 300.000 euros.

***Artículo 4.***– Entidades beneficiarias.

Tendrán la condición de entidades beneficiarias de las ayudas contempladas en el presente programa, las Universidades oficiales con centros académicos ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, los Centros Tecnológicos del País Vasco, los Centros de

tza zentroak eta toki-garapenerako agentziak. Horretarako, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Ekintzailea informatu eta babesteko azpiegitura izatea, aholkularitza-lanak sarri egitea eta ekintzaileari laguntzeko tresnak izatea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduerarako zentroa edukitzea.

c) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea, bai eta SPRI taldeko edozein enpresarekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko betebehar oro beteta edukitzea ere.

d) Diru-laguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debekuren baten eraginpean ez egotea, ezta sexu-bazterkeriagatik zigortuta ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera.

e) Erakunde onuraduna enpresa bada, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz:

– Enpresa krisian ez egotea. Enpresa bat krisian egongo da, baldin eta krisian dauden enpresak egoera horretatik ateratzeko eta berregituratzeko estatuko laguntzei buruzko jarraibideen 9., 10. eta 11. paragrafoetan ezarritako irizpideak betetzen badira (2004ko EBAO, C244); eta

– Erakunde eskatzailea edo bere taldeko enpresaren bat berreskuratze-agindu baten menpe ez egotea, hain zuzen ere, Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela aurretiaz erabakitzearen ondorioz.

***5. artikulua.–*** Diruz laguntzeko moduko jarduerak.

Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako jarduera guztiek jaso ahal izango dute diru-laguntza, baldin eta euskal gizartearen kultura ekintzailea eta enpresa-espiritua sustatzea badute helburutzat.

Ildo horretatik, jarduera hauek jaso dezakete diru-laguntza:

a) Komunikazio eta zabalkunde ekintzen bidez ekimen ekintzailea sustatzea.

b) Elkarguneak eratzea (bisitarientzako egunak, mahainguruak, txostenak, elkarrizketak, eta abar), ekintzaileekin hitz egiteko, beren ezagupenak, bizipenak eta estrategiak ezagutze aldera.

c) Ekintzailetzarako guneak sortzea IKTak erabiliz.

d) Ekintzailetzako prestakuntza-tailerrak sustatzea, ideiak sortzeko, enpresak eratzeko, eta abarretarako.

Empresa e Innovación del País Vasco y Agencias de Desarrollo Local del País Vasco que cumplan con los siguientes requisitos:

a) Disponer de infraestructura para la información y apoyo a la persona emprendedora, realizar habitualmente tareas de asesoramiento y disponer de herramientas de apoyo a la persona emprendedora.

b) Disponer de un centro de actividad en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, así como de las obligaciones que mantenga con cualquiera de las empresas del Grupo SPRI y con el Gobierno Vasco.

d) No hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de ayudas o subvenciones públicas, o incursas en alguna prohibición legal que inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

e) En el caso de que la entidad beneficiaria sea una empresa en el sentido del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea:

– No hallarse en situación de empresa en crisis, en el sentido de los párrafos 9, 10 y 11 de las Directrices comunitarias sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas en crisis (DOUE 2004, C 244), y

– No estar, ni la entidad solicitante o cualquier empresa de su grupo, sujeta a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común.

***Artículo 5.–*** Actuaciones subvencionables.

Serán susceptibles de ser subvencionadas todas aquellas actividades desarrolladas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que tengan por objeto el fomento de la cultura emprendedora y el espíritu empresarial en la sociedad vasca.

A dichos efectos se entenderán, entre otras, como actividades subvencionables:

a) Fomentar la iniciativa emprendedora mediante acciones de comunicación y difusión.

b) Generar espacios de encuentro (jornadas de puertas abiertas, mesas redondas, ponencias, entrevistas, etc.) con personas emprendedoras para compartir sus conocimientos, experiencias y nuevas estrategias.

c) Crear espacios de emprendimiento mediante el uso de las TICs.

d) Fomentar talleres formativos de emprendimiento, de generación de ideas, de creación de empresas, etc.

e) Sormena sustatzea eta negozio-aukera berriak bilatzea.

f) Aitortza-ekintzak antolatzea eta bai lehiaketak eta enpresa-proiektuentzako sariak entregatzea ere.

g) Enpresarien irudia sendotzea eta enpresa-bokazioak agerraraztea.

h) Ekintzailetzari lotutako kultura eta baloreak sustatzeko material inprimatu eta ikus-entzunezkoak editatzea.

***6. artikulua.***– Gastu hautagarriak.

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak, programa honen xede direnak, izango dira gastu hautagarriak, baldin eta 2011ko urtarrilaren 1etik 2011ko azaroaren 30era bitartean egiten badira, 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

***7. artikulua.***– Gastu hautagarriei aplika dakizkieken baldintzak.

Hauek dira gastu hautagarriak:

– Egingo den jardueraren sustapena eta zabalkundea egiteko gastuak.

– Jardueraren euskarria izateko dokumentazioa edo beste material batzuk editatzekoak.

– Txostengileak kontratatzekoak.

– Programa honi lotutako ekintzak kudeatu eta gauzatzeari zuzenean egozteko diren pertsonal-gastuak.

– Arrunta den beste edozein, baldin eta jarduera burutzeari zuzen lotua bada, kanpoan direlarik erakunde eskatzailearen eguneroko jarduera arruntarenak.

Deskontuak eta antzekoak izanez gero, fakturan sartuta egon zein ez, gastua gutxitu egingo da.

Ez dira gastu hautagarritzat hartuko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kontzeptuan izandako gastuak.

Gastu hautagarriaren balorazioa hauxe izango da: kontzeptu hori dela-eta, erakunde onuradunak egindako ordainketa errealari dagokiona.

***8. artikulua.***– Laguntzen zenbatekoak eta motak.

1.– Programa honetan jasotako laguntzak diru-laguntza izango dira.

2.– Laguntzen zenbatekoa, 5. artikuluan ezarritako jarduerak gauzatzeko onartutako gastuen % 50era iritsi ahal izango da. Erakunde onuradun bakoitzeko, 15.000 euro izango dira gehienez.

Laguntza kalkulatzeko, ehuneko hauek erabiliko dira, zein jarduera diren eta arlotan garatzen diren kontuan hartuta:

a) Ekintzailetza zabaldu eta arlo horrekiko sentsibilizazioa sustatzeko jarduerak gauzatzeko, ekin-

e) Estimular la creatividad y la búsqueda de nuevas oportunidades de negocio.

f) Organizar actos de reconocimiento, concursos y entrega de premios a proyectos empresariales.

g) Fortalecer la imagen del empresariado y despertar vocaciones empresariales.

h) Editar materiales impresos o audiovisuales para promover la cultura y los valores asociados al emprendimiento.

***Artículo 6.***– Gastos elegibles.

Tendrán la consideración de gastos elegibles, los incurridos, desde el día 1 de enero 2011 hasta 30 de noviembre 2011, en la realización de aquellas actividades subvencionables objeto del presente programa, en base a lo dispuesto en el artículo 5.

***Artículo 7.***– Requisitos aplicables a los gastos elegibles.

Se considerarán como gastos elegibles, los siguientes:

– Promoción y difusión de la actividad a realizar.

– Edición de documentación u otro material soporte de la actividad.

– Contratación de ponentes.

– Personal directamente imputable a la gestión y realización de las acciones presentadas con cargo a este programa.

– Cualquier otro gasto corriente directamente imputable a la realización de la actividad, excluidos los de la actividad corriente diaria de la entidad solicitante.

Los descuentos y similares incluidos o no en factura supondrán un menor valor del gasto.

No se considerarán como gastos elegibles las cantidades soportadas en concepto de Impuesto sobre el Valor Añadido.

La valoración del gasto elegible será la correspondiente al pago real efectuado por la entidad beneficiaria por dicho concepto.

***Artículo 8.***– Modalidad y cuantía de las ayudas.

1.– Las ayudas contempladas en el presente programa adoptarán la forma de subvenciones.

2.– El importe de las ayudas podrá alcanzar hasta el 50% como máximo del gasto admitido derivado de la ejecución de las actividades establecidas en el artículo 5, con un límite de 15.000 euros por entidad beneficiaria.

Para el cálculo de la ayuda se tendrán en cuenta los siguientes porcentajes dependiendo de las actividades y las áreas en que se centren:

a) Para actuaciones en el área de difusión y sensibilización del emprendimiento, entrevistas a empren-

tzaileei elkarrizketak egiteko, bisitarientzako egunak antolatzeko, telebista-iragarkien bidez komunikazio-ekintzak zabaltzeko, eta abarretarako, gastu hautagarrien % 50.

b) Ondoko aintzatespen ekitaldietarako, diruz lagundu daitezkeen gastuen % 50ekoa izango da zenbatekoa: sariak, aipamenak, omenaldiak, eta arrakasta-edo porrot-esperientziak izan dituzten pertsona ekintzaile edo enpresaburu ospetsuen testigantzak

c) Ondoko ekintzetarako, diruz lagundu daitezkeen gastuen % 30 izango da zenbatekoa: prestakuntza-ekintzailetza sustatzeko tailerrak, enpresa-simulazioak, negozio-ideiak sortzekoak eta abar.

d) Izaera ludiko edo baretzaileko jardueretarako, eta material inprimatuak, gidak, eskuliburuak eta abar editatzeko jardueretarako, gastu hautagarrien % 30 izango da zenbatekoa.

3.– Aurkeztutako laguntza guztiak batera esleituko dira, ekitaldi berean, lehiaketaz baliatu gabe, behin eskabide guztiak guztiz osaturik jasoz gero.

Artikulu honetan ezarritako ehunekoei dagokienez, egindako eskabideei aurre egiteko, programaren finantzaketari lotutako aurrekontu-kredituak behar hainbatekoak ez badira, haien arteko hainbanaketa egingo da; hartarako kalkulua egiteko, kalkulatutako diru-laguntza teorikoaren zenbatekoa hartuko da oinarritzat.

4.– Edozelan ere, SPRI SAren ekarpenaren muga izango dira laguntza hauek, eta aurkeztutako aurrekontuez harago doan ezein zenbateko ordaintzea enpresa onuradunaren kargura izango da. Hasieran aurreikusitakotik beherakoa bada exekutatutako guztizko gastua, emandako laguntzaren zenbatekoa berregokitu eginen da.

***9. artikulua.***– Laguntza-eskabideak aurkezteko epea.

Laguntza-eskabideak aurkezteko epea, programa hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2011ko azaroaren 30era arte.

***10. artikulua.***– Laguntzak eskatzea.

Baldintzak betetzen dituzten erakundeek laguntzak jaso nahi badituzte, laguntza-eskabidea egin beharko dute, zehazki, programa honen I eranskinean argitaratutakoa.

Erakundea ordezkatzeko esku duen pertsonak aurkeztu beharko du eskabidea, berak seilaturik eta sinaturik, SPRI SAren egoitzan: Urkixo zumarkalea 36, 4. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 48011 Bilbao.

Laguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

dedores, jornadas de puertas abiertas, acciones de comunicación a través de spots en TV, cuñas de radio, etc. el 50% de los gastos elegibles.

b) Para actos de reconocimiento a través de premios, menciones, homenajes, testimonios de personas emprendedoras y/o empresarias de reconocido prestigio con experiencias de éxito o fracaso, el 50% de los gastos elegibles.

c) Para acciones de formación, talleres de fomento del emprendimiento, de simulación empresarial, de creación de ideas de negocio, etc., el 30% de los gastos elegibles.

d) Para otras actuaciones de carácter lúdico o de distensión, de edición de materiales impresos, guías, manuales, etc., el 30% de los gastos elegibles.

3.– La adjudicación de todas las ayudas presentadas se realizará de una sola vez, en un mismo acto, sin utilizar la técnica concursal, una vez recibidas todas las solicitudes completas.

A tal efecto, si las disponibilidades presupuestarias vinculadas a la financiación del programa, resultaran insuficientes para atender las peticiones formuladas en el porcentaje establecido en el presente artículo, se procederá a su prorrateo entre las mismas, tomando como base para su cálculo el importe de la subvención teórica calculada.

4.– Estas ayudas serán, en todo caso, el límite máximo de aportación de SPRI, S.A., corriendo a cargo de cada entidad beneficiaria el pago de cualquier cantidad que exceda del presupuesto presentado. En el supuesto de que el gasto total ejecutado sea inferior al inicialmente previsto, se reajustará proporcionalmente el importe de la ayuda concedida.

***Artículo 9.***– Plazo de presentación de solicitud de ayuda.

El plazo de presentación de la Solicitud de Ayuda será desde el día siguiente de la publicación de este programa en el Boletín Oficial del País Vasco hasta el 30 de noviembre de 2011.

***Artículo 10.***– Solicitud de ayuda.

Las entidades que reúnan las condiciones para poder acceder a las ayudas previstas, deberán cumplimentar la solicitud de ayuda, publicada como anexo I del presente programa.

Dicha solicitud se remitirá sellada y firmada por la persona que posea poder suficiente para representar a la entidad, a las oficinas de SPRI, S.A. en Alameda de Urquijo, 36-4.ª planta, Edificio Plaza Bizkaia, 48011 Bilbao.

Documentación que acompañará a la solicitud de ayuda:

a) Egingo diren ekintzen gaineko memoria deskriptiboa, non puntu hauek sartuko diren:

– Lortutako helburuak.

– Zein pertsonarentzat izango den.

– Eskabidea aurkezten den ekonomia-ekitaldian zehar, garatu diren edo egitea aurreikusten diren jarduera edo ekimenen edukiaren gaineko detaileak.

– Aipatu jarduerak garatzeko beharrezko diren materialen eta giza baliabideen gaineko detaileak.

– Kasua bada, proposatutako jardueretan genero ikuspegia nola txertatu, detaileak.

– Aurkeztu den proiektuaren justifikazioa, eta bai laguntzaren zenbatekoa eta beharra ebaluatzeko egoki irizten zaien edozein elementu.

b) Jarduerako gastuak banakaturik.

c) Gastu hautagarrien fakturen fotokopia.

d) Gastu hautagarrien ordainagiriak.

e) Erakundearen legezko ordezkariaren adierazpena, zehazki, II eranskineko ereduarekin bat datorrena.

f) Kasua bada, eraketa-eskrituraren, estatutuen eta merkataritza erregistroko inskripzioaren fotokopiak.

g) Eskabidea sinatu duen pertsonaren ahalordearen fotokopia.

h) Kontu-korrontearen titulartasuna adierazteko finantza-erakundearen ziurtagiria.

i) Zerga-alorreko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzen duen ziurtagiria.

j) Erakunde onuraduna enpresa bada, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz:

– Aitorpena, Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela aurretiaz erabaki ondoren, enpresa eskatzailea ez dagoela berreskuratze-agindu baten menpe dioena.

– Aitorpena, minimis-eko araubidea aplikatuz erakunde eskatzaileak edo bere taldeko edozein enpresak azken hiru ekitaldi ekonomikotan eskatutako eta/edo jasotako laguntzena.

***11. artikulua.***– Ebaluazio-, ebazpen- eta ordainketa-prozedura.

SPRI SAk aztertuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta dokumentazio osoa duten eskabideak ebatziko.

SPRI SAko zuzendari nagusiak, edo berak izendatzen duen pertsonak, eskumena izango du laguntzari buruzko ebazpena emateko. Ebazpena baiezkoa bada, ordainketa bakar batez egingo zaio ordainketa

a) Memoria descriptiva de las acciones realizadas en la que se contemplen los siguientes aspectos:

– Objetivos logrados.

– Personas destinatarias.

– Detalle del contenido de las actividades e iniciativas desarrolladas o durante el ejercicio económico en el que se presenta la solicitud.

– Detalle de materiales y medios humanos empleados para desarrollar las citadas actividades.

– Detalle de la incorporación de la perspectiva de género en las actividades realizadas, en su caso.

– Justificación del proyecto presentado, así como cualquier elemento que se considere de utilidad para evaluar la necesidad y el importe de la ayuda.

b) Desglose de gastos por actuación.

c) Fotocopia de las facturas de los gastos elegibles.

d) Justificantes del pago de los gastos elegibles.

e) Declaración responsable del representante legal de la entidad conforme al modelo facilitado en el «anexo II».

f) En su caso, copia de la escritura de constitución, estatutos y su inscripción en el Registro Mercantil.

g) Fotocopia del poder de representación de la persona firmante de la solicitud.

h) Certificado de entidad financiera de titularidad de la cuenta corriente.

i) Certificado de cumplimiento de obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social.

j) En el caso de que la entidad solicitante sea una empresa en el sentido del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea:

– Declaración de que la entidad solicitante no se encuentra sujeta a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común.

– Declaración de las ayudas que en aplicación del régimen de minimis hayan sido solicitadas y/o recibidas por la entidad solicitante o cualquier empresa de su grupo durante los tres últimos ejercicios económicos.

***Artículo 11.***– Procedimiento de evaluación, resolución y pago.

SPRI, S.A. analizará las solicitudes presentadas y resolverá las solicitudes recibidas con la documentación completa.

El Director General de SPRI, S.A., o en su caso quien éste designe, será el órgano competente para resolver sobre la concesión de la ayuda, resolución que se dictará, se comunicará, y se procederá, en caso

erakunde onuradunari. Horretarako, gehienez ere bi hilabeteko epea egongo da, 2011ko azaroaren 30etik hasita.

*12. artikulua.–* Laguntzen metaketa eta mugak.

1.– Erakunde eskatzaileak enpresak badira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, CE 1998/2006 Araudian ezarritako baldintzak bete beharko dira, laguntza emateko.

2.– Horrelako kasuetan, 1988/2006 Erregelamenduan (edo horren ordezkoan) ezarritako gehienezko muga ez bada gainditzen, laguntza hauek eman ahal izango dira; eta, halaber, kasua bada, Europako Batzordeak baimendutako estatu-laguntzen araubidean, minimis laguntzak emateko ezarritako gehienezko muga gainditzen ez bada.

3.– Proiektu bati emandako laguntzen eta diru-laguntzen zenbatekoa, banaka hartuta nahiz beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru-laguntza edo laguntzekin batera, edota xede berbererako erabilitako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderekin batera hartuta, ezin da izan onuradunak burutu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa edo laguntzaren xedearen kostua baino handiagoa; onuradunak, gainera, laguntza edo diru-laguntza horien berri eman behar dio SPRI SAri nahitaez.

Muga hori, edo laguntza-lerro honek zehazten dituen beste batzuk, gaindituz gero, soberako kantitatea murriztu egingo da laguntza-lerro honen arabera emandako zenbatekotik.

Artikulu honetan zehaztutako metatze-mugak ez direla gainditzen egiaztatzeko, onuradunak aurreko hiru zergalditan jasotako beste edozein laguntza publikoren gaineko deklarazio idatzia aurkeztu beharko dio SPRI SAri.

*13. artikulua.–* Laguntza-eskabideen onarpena eta zuzenketa.

Laguntza-eskabidea puntu guztietan behar bezala beteta ez badago, edo programa honetan eskatutako dokumentazio osoa aurkezten ez bada, SPRI SAk 10 egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak helarazteko eskatuko dio enpresaren legezko ordezkariari, eta bestalde, ohartaraziko dio hala egin ezean eskaera egiteari uko egingo diola, SPRI SAko Enpresa Eraldaketarako Departamentuak horixe adierazteko ebazpena eman ondoren, eta horixe jakinaraziko zaiola erakunde eskatzaileari.

*14. artikulua.–* Erakunde onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunek, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 14. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Le-

de resolución positiva, mediante pago único a la entidad beneficiaria, en el plazo máximo de dos meses contados a partir del 30 de noviembre de 2011.

*Artículo 12.–* Acumulación y límites de las ayudas.

